



gomendioen dekalogo

[FAMILIA ETORKINEI, ERREFUXIATUEI ETA/EDO MISTOEI FAMILIA BERRELKARTZEKO
FASEETAN LAGUNTZEKO GIDA]

*“Gizakiak beren kabuz pentsaraziz gida daitezke, haiekin zalantza egingo bagenu bezala,
eskutik eramango bagenitu bezala, haiek ohartu gabe”.*

Voltaire (1694-1778)


Material hau **Itziar Andetxaga Saizek** egin du.

Laguntzaileak: Josune García, Iñaki Ramírez de Olano, Ángela Rico, Matxalen Vicuña, Estíbaliz Villar, Zaloa Pérez.



CEAR-Euskadi • Cristo 9B – 5º, 48007 Bilbao • t 94 4248844 • f 94 4245938
ceareuskadi@cear.es • www.cear.es







* **Aurkezpena** [4]

* **Hitzaurrea** [4]

* **Gomendioak:**

● **Gomendio orokorrak** [7]

(Familiarekin harremanak dituen pertsonari
dagozkion gomendioak)

● **Familiari dagozkion gomendioak** [8]

* **Bibliografia** [12]

* aurkezpena

“Munduaren loria iragaitzazkoa da. Loria ez dio garrantzia ematen gure bizitzari, gure istorio pertsonala sortzeko egiten dugun aukerak, gure utopietan sinesteak eta gure ametsen alde borrokatzeak, baizik”.

Paulo Coelho

CEAR-Euskadi

CEAR-Euskadi irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1989an hasi zen lanean eta, 1996an, berezko nortasun juridikoa lortu zuen.


Honako hau da erakunde horren egitekoa: 1951ko Genevako Konbentzioa eta errefuxiatuak, lekuz aldatutakoak eta herrigabeak babesteko nazioarteko legeak behar den bezala aplikatzea eta garatzea sustatzea. Halaber, etorkinen aldeko Giza Eskubideak defendatzen eta sustatzen dituzten nazioarteko itunak behar den bezala aplikatu eta gara daitezen lan egiten du. Era berean, giza garapen integrala bilatzen du.

CEAR Euskadik etorkin ekonomikoekin eta asiloa emateko eta aberri-gabeak direla onartzeko eskatzen duten pertsonekin egiten du lan.

2006an ZENBAT PERTSONAK JASO ZUTEN ARRETA*

Iturria: CEAR-Euskadi 2006ko memoria.

** 4.025 pertsona horiek 96 herrialdeetakoak ziren*



FAMILIEI ARRETA EMATEKO PROGRAMA

CEAR Euskadiko Familiei arreta emateko programa erakundearen Gizarte Sailaren Informazio eta Orientaziorako Zerbitzuaren barruan dago. Migrazio-prozesuaren ondorioz familian desagaturatze-prozesurik ez gertatzea da programaren helburu orokorra.

Helburu hori lortzeko, bi alderdi osagarri ditu programak:

- Familia berrelkartzeko prozesuaren aurreko edo hasierako faseetan prebentziozko esku-hartze zuzena egitea familiekin. Fase horietan, familia desagaturatzea eragin dezaketen arrisku-egoerak hauteman dira.
- Egindako esku-hartzeetan oinarritutako azterketa. Horri esker, ateratako datuak aztertu ahal izan ditugu, bai eta aipatutako familiak laguntzeko jarraibideak formulatu ere. Jarraibide horiek gida honetan bildu ditugu.

* hitzaurrea

Denbora luzez bananduta egon eta gero familiak berrelkartuta izandako esperientzietatik ondorioztatu genuen egoera horretan agertzen ziren arrisku-faktoreei buruzko azterketa egin beharra zegoela. Izan ere, erakundea erabili duten familiekin egindako esku-hartze zuzenetan ohartu ginen faktore horiek bazirela.

Arrisku-faktore horiek familia-mota hauetan hauteman dira sistematikoki:

- Jatorrizko herrialdean seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak. Transnazionalak esaten zaie eta berriz bildu baino lehenagoko fasean daude.
- Duela gutxi berriz bildu diren familiak, berrelkartzearen lehen fasean daudenak.

Familia-sistemako kideak joateak eta berrelkartzeak familiako galera anbigua sortzen dute azpisistema guztietan (galera lausoa, osatugabea edo partziala; beraz, zaila da gaiari heltzea). Hori dela-eta, familiako kideek ez dute argi eta garbi ikusten familiako norbait familiaren barruan edo familiatik kanpoan dagoen eta/edo familiako kideek ez dute argi ikusten bakoitzari zer rol dagokion (Celia Falicov “Migración, pérdida ambigua y rituales”). Era berean, hainbat azterketaren arabera, egiturazko eta emoziozko arazo eta arazo psikosomatiko ugari agertzen dira familia berrelkartzeko aldian. Izan ere, aldi horrek zailtasunak eta eragin traumatikoak sortzen ditu gurasoengan eta adinez txikikoengan.

Bestalde, erakundeak familia erabiltzaileekin egindako esku-hartzeak aintzat hartuta, argi gelditu da famulietan arrisku-faktore horiek gertatzen ari direla antzemateak eta hainbat prebentzio-jarduerarekin lantzeak arazo horiek sortzeko aukera nabarmen gutxitzen dutela.

Azkenik, hauek dira atzemandako arrisku-faktorerik ohikoenak:

- Familia-sistemako kide bat edo batzuk migrazioaren kontra egotea.
- Migrazio-prozesua egoera txarrean gertatzea.
- Migratu eta gero egoera txarrean egotea; agiririk ez izatea, lan-merkatuan ezin sartzea, etab.
- Familiak edo familiako kideetako batek hainbat testuingururekin harremanik ez izatea (elkarrekin, lan-mundua, osasun-sistema...).
- Familia-berrelkartzearen ondorioz tentsioak egotea.
- Familia-unitateko kide batek edo batzuk testuinguru berrietara egokitzeko zailtasunak izatea.
- Familia-unitateko kide baten edo batzuen itxaropenak errealitatearekin bat ez etortzea.
- Seme-alabak zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta arazo handiagoak dituzte ingurune berrian sozializatzeko.

Gomendio hauek ez dute laborpen bibliografiko bat izan nahi, ez eta gaiari buruzko egungo teorien eta hipotesien kopurua handitu nahi ere. Helburua zera da: lehen deskribatutako familiekin harremanak

dituzten pertsona guztiei familiengana eta familien egoerara gerturatzeko tresna erraz eta eraginkorra ematea. Hau da, arrisku-faktoreei antzemateko tresna ematea arazo psikosozial larrien kontrako prebentzio-lana egin ahal izateko.

Beraz, familia horiekin edozein motatako harremana duten pertsonentzat da gida hau. Besteak beste: administrazioarekiko izapideak egiten dizkieten funtzionarioentzat, adinez txikikoen hezkuntzaz arduratzen diren irakasleentzat, osasun-etxeetan artatzen dituzten osasun-langileentzat, etab.

Horrenbestez, bi mailatan antolatuko ditugu gomendioak: lehenengoa orokorragoa da eta deskribatutako familiekin harremana duten pertsonentzat izango da (Gomendio orokorrak). Beste maila, berriz, familiekin zerikusi handiagoa duten gaiekin lotuta dago (Familiei dagozkien gomendioak).

Gure erakundera, deskribatutako ezaugarriak dituzten familiak etortzen dira, eta, familia horiengan, arrisku-faktoreak aztertu ditugu. Azterketa horretatik ateratako ondorioei eta bibliografiaren berrikuste zehatz bati esker sortu ditugu gomendio hauek. Halaber, familia horien egoera, errealitate kulturala eta autonomia errespetatuz haiengana gerturatzeko eta haiekin egindako lanak ere lagundu digute gomendio hauek sortzen.

Hala ere, gure ustez, batetik, prebentzioa da estrategiarik onena, eta, bestetik, egoera horretako familiekin noiz edo noiz harremana duten pertsona guztiek lagun dezakete faktore horiei antzematen eta familia horien prebentzio-lana gauzatzen (zeregin profesionalean aise sar ditzaketen tresnak ikasiz). Uste oso hori dela-eta sortu zen lan hau. Asmo hori edukita gida hau hartzen duten guztiei gure eskerrik beroena eman nahi diegu CEAR-Euskadikook.





* gomendioak

Gomendiok orokorrak

Atal honetan bildutako gomendioen oinarri nagusiak alderdi etikoak eta moralak dira. Gure ustez, harreman guztietan, kontuan hartu behar dira alderdi horiek:

1 Ikuspegi zuhurra

“Nire ustez, ni eta nire buruaren arteko aldea nire buruaren eta besteen artean dagoenaren adinakoa da”.

Michel Eyquem de Montaigne

Norbera kulturalki nor den ikuspegi zuhur, ireki eta harberatik aztertzea, bai eta kultura-aniztasunari dagokionez zer jarrera duen ere. Norberak bere kultura eta beste kulturekiko aurreiritziak eta estereotipoak aztertzea.

2 Errespetuzko eta jakin-minezko jarrera

“Nahiago dut nire adimena jakin-mina dela-eta zabaltzea, uste osoa dela-eta ixtea baino”.

Gerry Spence

Kultura aniztasunarekiko errespetuzko eta jakin-minezko jarrera izatea. Horri esker, egoera korapilatsuei beste irtenbide alternatibo batzuk bila

diezazkiekegu. Halaber, ezberdintasunak kontuan ez hartzeagatik eta pertsona/familia etorkinen eta errefuxiatuen ezberdintasun kulturalak bakarrik ikusteagatik sortutako bereizkeriaren kontra jo behar da. Beraz, ezberdintasunez ohartzea eta ezberdintasunak aberasgarriak direla jakitea da gakoa.

3 Enpatia

“Karitatea umiliagarria da, bertikala eta goitik beherakoa baita; solidaritatea, berriz, horizontala da eta elkarrenganako errespetua dakar berekin”.

Eduardo Galeano

Pertsona/familia etorkinei eta errefuxiatuei iruditzen zaie besteek ez dituztela ulertuko edo mesfidantza eta baztertze soziala sorraraziko dutela. Irudipen hori arintzeko, enpatiaz eta entzute aktiboaz jardun behar da. Hazteko, pertsona/familia etorkina eta errefuxiatua gizakitza hartu behar da. Halaber, gai izan behar dugu pertsona/familia horrekin identifikatzeko.

4 Akulturazio funtzionala

“Batek ezin du egin beti nahi duena, baina beti izango du egin nahi ez duena ez egiteko eskubidea”.

Mario Benedetti

Pertsona/familia bakoitzak erabaki behar du kultura bakoitzetik zer integratuko edo gordeko duen, eta erabaki horiek ontzat hartu behar ditugu. Hala, akulturazio funtzionala sustatzen dugu eta pertsona horrek gizarte hartzailean bizitza normaldua izan dezake. Hala ere, uneoro asimilazionismoa eta baztertze kulturala saihestu behar ditugu.

5

Kulturarteko komunikazioa

“Nire hizkuntzaren mugak nire munduko mugak dira”.

Ludwig Wittgensten

“Kulturarteko komunikazioa interakzio-prozesu sinbolikoa da. Haute-mateetan eta jokabideetan ezberdintasun kultural aitortuak dituzten norbanakoak eta taldeak hartzen ditu komunikazio-prozesu horrek. Hala, topaketa nolakoa izango den eta topaketak zer emaitza izango duen aldaera horien eraginpean daude.” Asunción-Lande.

Kulturarteko komunikazioak ezezagunarekiko antsietatea eta zalantza sortzen du. Izan ere, komunikazioaren edukiaz gain, metakognizio-prozesua (nola komunikatzen garen) ere antzeman behar da. Horretarako, hitzik gabeko mintzairaren kode guztiak ere hartu behar dira kontuan, kultura-elementuari begien bistatik alde egiten utzi gabe.

Pentsa dezagun hitz egiteko modua eta egiteko modua izaeratzat hartzen direla. Beraz, estereotipoak etengabe gogoratzen eta berresten dira. Estereotipoei aurre hartzeko, oinarritzkoa da interakzioaren komunikazio-arazoak konpontzea eta argitzea. **Horretarako**, kulturarteko komunikazioaren garrantzia hartu behar da kontuan. Hala, hitz egiteko moduek edo hizkuntza-erabilerek ez dituzte urruntasun sozialak areagotuko ezta gizarte-bazterketaren prozesuak justifikatuko ere.

6

Urruntze inplikatua

“Normalean, konfiantza ematen diegunen konfiantza dugu”.

Tito Livio


Gomendio hori, hain zuzen ere, familia horiekin egiten diren esku-hartzetan erabili behar da. Familiekiko distantzia orekatu bat ezartzean datza, distantzia kulturala nabarmendu gabe; dena den, ez dugu distantzia kultural hori gutxietsi behar.

Pertsona eta familia etorkinen eta errefuxiatuen taldea urruntzearekiko oso sentikorra da, horrekin gizartearen mezu nagusia (gu – haiek) indartzen baita. Horrek mesfidantza, ulertu ezina eta bazterketa sorrarazten ditu. Eskuhartzeak erabiltzailearekiko urruntzerik ekartzen ez badu, ordea, harreman profesionala okertu egiten da, blokeatu, alegia. Beraz, urruntzearen eta inplikazioaren artean oreka aurkitzean datza gakoa.

Familiei dagozkien gomendioak

Atal honetako gomendioek hiru informazio-iturri dituzte:

- Erakundeak egindako errealitatearen diagnostika. Urtetan egoera horretan dauden familiekin lanean aritu den bitartean egin du. Berriz biltzeko prozesua eta berrekartze-prozesua aztertzen ditu, ikuspuntu kualitatibotik, batez ere.
- Hainbat argitalpen berrikustea. Argitalpen horiek fenomeno hori ikuspuntu teorikoagotik landu duten hainbat autorerenak dira.
- Familien errealitatera gerturatzea. Errespetuz eta etikoki egiten da, printzipio hauei jarraituz:
 - ▶ Pertsonaren duintasuna.
 - ▶ Onespina– Bereizkeriarik eza.
 - ▶ Konfidentzialtasuna – Intimitaterako eskubidea.
 - ▶ Autodeterminazioa.



Informazio-iturri horiek lagundu digute familia etorkinekin eta errefuxiatuekin zerikusia duten gomendio hauek formulatzen. Helburua arrisku-egoerei antzematea da. Hala, prebentziozko jarduerak ezartzea errazagoa izango da:

7 Familiek emigratzea eragiten duen fenomeno berri izatea

“Ongi bat baino ez dago, ezagutza; gaizki bat baino ez dago, ezjakintasuna”.

Sócrates

Familia etorkinak eta errefuxiatuak aztertu eta gero, ohartu gara honako hau dela migrazioaren arazorik nagusia: jatorrizko herrialdeetako segurtasun-falta eta gatazkak.

Honako hauek ekartzen dute segurtasun-falta: batetik, pertsonaren segurtasunaren kontrako gatazka- edo arrisku-egoera errealak egotea; eta, bestetik, oinarritzko premiak asetzeko gai ez den muturreko egoera sozio-ekonomikoa izatea.

Borondatezko arrazoiak

Pertsonak edo familiak erabakitzen du emigratzea. Beraz, hein batean, migrazio-prozesua planifikatzeko eta antolatzeko aukera du. Planifikatzeko aukerarik ez duten migrazioetan baino egoera hobea izatea dakar horrek. Hala ere, emigratzeko zailtasun handiak daude.

Ez-borondatezko arrazoiak

Egoerak behartuta pertsonak edo familiak jatorrizko herrialdea uzten dute. Beraz, bidaia eta migrazio-prozesua planifikatu eta antolatu gabe egiten dira. Migrazio horiek eragiten dituzten egoerak askoz ere lazarriagoak dira. Pertsonak/familiak egoeren mende sumatzen dute

beren burua eta ez dute egoeran eragiteko gaitasunik edo gaitasun eskasa dute.

Hortaz, oinarritzkoa izango da familiak emigratzea eragin duen arrazoiaren berri izatea. Hala, migrazio-prozesua dela-eta sortutako familia barruko arrisku-egoerei antzeman ahal izango zaie.



8

Migrazio-prozesua zein egoeratan gertatu den zehaztea

“Oraina iraganetik sortzen da ezinbestean; ondorioetan dagoena kausan jada bazegoen”.

Henri Bergson

Migrazio-prozesuan, hainbat eta hainbat motatako egoerak gerta daitezke. Nolanahi ere, estres-egoera larriena sor dezaketen egoeren artean, hauek dira aipagarrienak:

- Migrazio-prozesua bakarrik hastea, seme-alaben zaintze-lana beste pertsona batzuen esku uzten dela, eta bikotekidearen laguntzarik izan gabe.
- Migrazio-bidaia nolakoa den. Gehienetan, muturreko egoeretan bidaiatzen da; batetik, aurkitu eta deportatuko duten beldur izaten dira, eta, bestetik, sarritan, arriskua egoten da norberaren segurtasun fisikorako.
- Bizilekua etengabe aldatzen ibili behar izatea; izan ere, txertatze-prozesua normaltasunez egitea eragozten du horrek.
- Jatorrizko herrialdean gelditu direnek familia-babesik ez ematea.
- Jatorrizko herrialdean seme-alabak zaintzeaz nor arduratuko den ezin hautatzea. Halaber, pertsona horrekin haurrak zaintzeko eta hezteko irizpideak ezin negoziatzea eta adostea.
- Familia-sistemako gainerako kideak egoera txarrean etortzea, emigratzeko arrazoirik izan gabe eta familia banandu zenetik debora luzea igaro eta gero.
- Familia-berrelkartzea era irregularrean gertatzea.

Familia-sistemako kide batek edo gehiagok aipaturiko ezaugarri horietako bat edo batzuk izateak esan nahi du familia horretan badaudela arrisku-faktoreak.

9

Familiaren uneko egoera aztertzea

“Laster ikasi nuen emigratzeak ordura arte izan diren euskarriak galtzea dakarrela; hau da, makulu gabe gelditzea bezala dela. Hutsetik hasi behar da, iragana kolpe batez deuseztatzen baita, eta jendeari bost axola zaio nondik zatozen edo aurretik zer egin duzun”.

Isabel Allende

Familiaren uneko egoeran, zenbait baldintzak izan dezakete eragina, eta arrisku-faktoreak sortu. Besteak beste, hauek aipatuko ditugu:

- Migrazio-prozesua abiarazi duen pertsonak –edo jada Espainiako Estatuan daudenak– sorlekuan gelditutako familia-kideen ekonomia-euskarriaren ardura izatea.
- Familia edo familia-kideren bat administrazio-egoera irregularrean egotea.
- Lan-merkatuan ezin sartzea, ostatu iraunkorra ezin lortzea, behar premia-zkoenak ezin asetzea, gizarteko ongizate-sistema normalizatutik eta osasun-sistematik kanpo geratzea...
- Familia edo familia-kideren bat gizarte- eta osasun-egoera kaxkarrean egotea.
- Benetako gizarte-sare praktikorik ez egotea. Duela gutxi eginiko ikerketetan frogatu denez, etorkinek eta errefuxiatuek, loturak eten, harremana galdu eta loturei erritu kutsua kenduz gero, sintoma kliniko gehiago izaten dituzte (depresioa, indarkeria...).
- Familia-sistemako kideek beren harreman-testuinguruekin erlaziorik ez izatea (besteak beste, auzo-, komunitate- eta eskola-testuinguruekin).
- Familiaren interakzio-testuinguruetan parte ez hartzea.

Aurreko atalean bezala, familia-sistemako kide batek edo gehiagok aipaturiko ezaugarri horietako bat edo batzuk izateak esan nahi du familia horretan arrisku-faktoreak daudela.

10

Familia berriro elkartzeko prozesuan sorturiko tentsioak hautematea

“Bere helburu eta asmo onak betetzeko pazientzia duenak soilik irabazten du bizitzaren borrokan”.

Proverbio Árabe

Familia-sistemako kideak denbora-epe luzez bananduta egon eta gero berriro elkartzen direnean, zenbait tentsio izan ohi da berreldatzeko horietan. Tentsio horiek, gainera, zenbait motatako gatazkak eta arazoak sor ditzakete. Hona hemen kontuan izan beharreko alderdiak:

- Familia-unitateko kide batek edo gehiagok testuinguru berrietara egokitzeko arazoak izatea; familiako txikienek eskolan tentsio-egoerak izatea; hizkuntza ikasteko zailtasunak; etab.
- Familia-kide guztiek ez dituzte balio berriak erritmo berean berengantzen, eta antzeko zerbait gertatzen da aurreko balioak gordetzearekin. Bestalde, baliteke sorlekutik ekarritako balioek eta bereganaturiko balioek talka egitea.
- Familia-sistemako kideren bat testuingurutik isolatzea edo testuinguruarekin harremanik ez izatea, kultura-arrazoiak direla-eta familia-barnean eginkizun jakin bat bete behar izateagatik.
- Testuinguru berrira egokitzeko beharrak ondorioak eragin litzake familia-hierarkietan. Hona hemen zenbait adibide: seme-alabek itzultzaile- edo bitartekari-lanetan jardutea; emakumeek familia-mantenuaren ardura beren gain hartzea; familiako adin txikikoek gurasoen zenbait eginkizun egitea, gurasoak lanez gainezka egoten direlako.
- Familia-unitateko kide baten edo gehiagoren itxaropenak errealitatearekin bat ez etortzea, bai eta familia-kideek itxaropen ezberdinak izatea eta horregatik gatazka sortzea ere.

- Haurrak zenbat eta nagusiagoak izan, orduan eta arazo gehiago izaten dituzte testuinguru berrian sozializatzeko. Familia berriro elkartzean adin txikikoak nerabezaroan egonez gero, bereziki zaila izaten da sozializazioa.
- Arazo nabarmenei heltzeko inizatibarik ez izatea, bai arazoei ezikusiarena eginda familiaren harmonia indartzen dela uste izateagatik, bai berez zailak diren egoeretan tentsio gehiago ez sortzeagatik.
- Genero-estresa izatea. Testuinguru berrian bereganaturiko balioak direla-eta, emakume askok independentzia-aukera gehiago dituztela nabaritzen dute. Horrenbestez, baliteke eskalada simetrikoko egoerak gertatzea, baita ezkontza desagitea ere.
- Familia-sistemako kide batek edo gehiagok bereizkeria, arrazismo, indarkeria edo xenofobia-bizipenak izatea.

“Zure bizitza ametsa izan dadila, eta zure ametsa, errealitatea.”

Antoine De Saint Exupery



* Bibliografía

- * **ACHOTEGUI LOIZATE, J.** "La depresión en los inmigrantes: Una perspectiva transcultural". *Bartzelona. Ediciones Mayo, 2002.*
- * **ARANA, R.** "Reencuentro entre padre e hijo". *Madril. Atlántida, 1999.*
- * **BRIK, E.; ZORITA, Y.** "Migración y Salud Mental". *Madril, Asociación Madrileña de Terapia de Pareja, 2003.*
- * **ENGELS, F.** "El origen de la Familia". *Madril. Albor, 1998.*
- * **EROLE, C.** "Familia y trabajo social. Un enfoque clínico e interdisciplinarios". *Buenos Aires. Espacio, 1998.*
- * **GOLDBETER, E.** "El duelo imposible. Las familias y la presencia de los ausentes". *Bartzelona. Herder, 2003.*
- * **JAES FALICOV, Celia.** "Family Transitions. Continuity & Change over the life circle". *New York. Guilford Press, 1988.*
- * **JAES FALICOV, Celia.** "Latino Families in Therapy. A Guide to multicultural practice". *New York. Guilford Press, 1998.*
- * **JAES FALICOV, Celia.** "Migración, pérdida ambigua y rituales"
- * **JAES FALICOV, Celia.** "Transiciones de la Familia". *Buenos Aires. Amorrortu, 1991.*
- * **JAES FALICOV, Celia.** "El trabajo con inmigrantes transnacionales: Expandiendo los significados de Familia, Comunidad y Cultura".
- * **LANDE, ASUNCIÓN.** "La Comunicación Humana". *México. Libros McGraw Hill, 1986.*
- * **McDANIEL, Susan; CAMPBELL, Thomas L.; SEABURN, David B.** "Orientación Familiar en Atención Primaria. Manual para médicos de familia y otros profesionales de la salud". *Springer, 1998.*
- * **MINUCHÍN, Salvador.** "Families & Family Therapy". *Gedisa, 1982.*
- * **MINUCHÍN, Salvador; FISHMAN, C.** "Técnicas de Terapia Familiar". *Buenos Aires. Amorrortu, 1976.*
- * **PELECHANO, V.** "Terapia Familiar Comunitaria". *Valentzia. Alfabius, 1980.*
- * **VON BERTALANFFY, L.** "Perspectivas en la Teoría General de Sistemas". *Madril. Alianza Universidad, 1979.*

